

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

4471

EBAZPENA, 2025eko irailaren 18koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, argitaratu eta gordailutzen baita Osakidetzako garbiketa-zerbitzuaren enpresa-esleipendunen hitzarmen kolektiboaren jarraipen eta bermerako batzorde paritarioak hartutako erabaki bat, 2024ko soldata-taulak (+% 0,5) eguneratzeari buruzkoa (hitzarmenaren kodea: 86002235012003).

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Aipatu den sinatutako hitzarmen kolektiboaren Batzorde Parekidearen akordio horri buruzko dokumentazioa 2025eko irailaren 10ean aurkeztu da REGCON erregistroan.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehenengoa.– Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak), 2. artikuluan, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila sortzen du, eta, 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan-arloko legeriak lan-harremanei buruz ezartzen duena betearazi behar du sail horrek, bestek beste.

Bigarrena.- Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluetan xedatutako eskakizunak betez sinatu da akordioa.

Hirugarrena.- Aurkeztu den erabakia inskribatu beharreko egintza bat da, maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Aztertu dira inskribatzeko eskaera eta erantsitako dokumentazioa, eta ikusi da eskaera horretan betetzen direla legezko eskakizun guztiak. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa eta Gordailua sortu zuen urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren (20/2023 Dekretuak aldatua, otsailaren 14koak) 9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Akordioa Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa eta Gordailuan inskribatu eta gordailutzeko agintzea, eta alderdiei jakinaraztea.

Bigarrena.– Xedatzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 18a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE.

ZIURTAPENA

Leire Idirin Requenak, Osakidetzako garbiketa-zerbitzuaren enpresa esleipendunen hitzarmen kolektiboko Batzorde Paritarioak emandako baimena baliatuta, hau

Adierazten du: 2025eko irailaren 10ean egindako bilkuran, batzorde horrek jarraian azaltzen den gaia aztertu zuen, UGT sindikatuaren eskariz, eta erabaki hau hartu du, bileraren aktatik transkribatuta.

Eskaria: SLOs/7/2025.

Planteatu den gaia: 2024. urteko hitzarmen kolektiboko soldata-taulak eguneratzeko aukera planteatu da, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 22ko 69/2025 Ebazpena argitaratu eta gero, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten langileen ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria 2024. urterako onartzen duen erabakia. Gobernu Kontseiluaren erabaki horren bidez, sektore publikoan diharduten langileen ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria onartu zen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera. Igoera hori eta aurretik onartutako % 2ko igoera batuta, guztira, % 2,5eko igoera izango da 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

Ebazpena: Batzordeak honako erabaki hau hartu du aho batez:

Osakidetzako garbiketa-zerbitzuaren enpresa esleipendunetarako hitzarmen kolektiboaren soldata-taulak onartu dira –akta honi eranskin gisa erantsi zaizkio, sinatuta–. Horietan, langileen ordainsarien kontzeptuak % 0,5eko igoera gehigarriaz eguneratu dira, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera. Igoera hori eta aurretik onartutako % 2ko igoera batuta, guztira, % 2,5eko igoera izango da 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 22ko 69/2025 Ebazpenari jarraituz, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten langileen ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria 2024. urterako onartzen duen erabakia.

Soldata-taulak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen direnetik aurrera gauzatuko dira ordainketak.

Eta hala ziurtatzen du, dagozkion ondorioak izan ditzan, Bilbon, 2025eko irailaren 10ean.

Leire Idirin Requena. Lan-harremanen teknikaria.

ERANSKINA

2024. URTEKO (% 2,5) SOLDATA-TAULAK TAULA BAKARRA EAE-KO HIRU LURRALDE HISTORIKOETARAKO					
A) Soldatak					
Taldea	Kategoria	Soldatak		Ospitalizatzte-plusa	
		Urtea (Euroak)	Hila (Euroak)	Urtea (Euroak)	Hila (Euroak)
A	A Zerbitziburua	44.260,55	2.950,71	1.770,41	147,53
B	B Zerbitziburua	38.806,58	2.587,10	1.552,26	129,36
B	Arduradun nagusia	30.913,56	2.060,91	1.236,56	103,05
C	Sektoreko arduraduna	28.628,42	1.908,56	1.145,13	95,09
E	Taldeko arduraduna	25.758,89	1.717,26	1.030,36	85,86
B	Kudeaketa-teknikaria	33.624,70	2.241,65	1.344,98	112,08
C	Administraria	28.667,44	1.911,16	1.146,69	95,56
D	Administrari laguntzailea	26.790,52	1.786,03	1.071,61	89,30
E	Gidaria eta garbitzailea	25.758,89	1.717,26	1.030,36	85,86
E	Peoi espezialista	24.368,28	1.624,55	974,73	81,23
E	Garbitzailea/Peoia	23.347,03	1.556,47	933,90	77,83

(*) Ospitalizatzte-plusa hamabi hilekotan pagatuko da.

B) Osagarriak					
Osagarriak	A Taldea (Euroak)	B Taldea (Euroak)	C Taldea (Euroak)	D Taldea (Euroak)	E Taldea (Euroak)
Antzinasuna urteko	796,92	665,42	614,13	506,56	447,68
Antzinasuna hileko	53,10	44,36	40,93	33,73	29,84
Gaueko lanaren plusa	59,58	48,45	39,42	34,50	34,50
Jaiegunak/igandeak egunez	89,03	71,71	56,26	51,84	51,85
Jaieguna gauez	127,18	102,41	77,64	74,07	74,07
Txandengatiko urteko plusa	1761,82	1.321,48	991,11	792,91	792,91
Txandengatiko hileko plusa	146,81	110,13	82,58	66,09	66,09

Garapen profesionala					
Maila	A Taldea (Euroak)	B Taldea (Euroak)	C Taldea (Euroak)	D Taldea (Euroak)	E Taldea (Euroak)
I	2.720,99	2.185,03	1.843,14	1.715,21	1.560,12
II	5.446,05	4.361,32	3.689,00	3.432,98	3.122,58
III	7.265,46	5.834,38	4.921,50	4.579,86	4.165,77
IV	9.982,39	8.016,16	6.761,88	6.292,52	5.723,53